

Armarriak

Lekeitio hiribilduak armarria behar zuen eta izan zuen¹, baina harako-harako armarriari buruz ez dakigu ezer ere. Hala ere, baliteke kostaldeko beste herri batzuen antzera, bale arrantza irudikatzea. Behintzat heldu zaizkigun armarri guztiak halakoak dira. Hala ere, jakizue ez naizela gai honetan inondik inora aditua, nire helburu bakarra sakabanuta egon den informazioa batzea eta ordenatzea izan dela. Horetu eta sakondu beharra dauka, baina...



1 Ezagutzen dugun lehena, “Remates, arriendos e inventarios de los bienes, papeles y libros del concejo de la villa de Lequeitio desde el año de 1569 hasta el de 1592” tituluko liburuko lehen orrian zegoen (LUA R 46). Balea handi bat eta balea kume bat agertzen dira eta arrainontzi bat 6 lagunez osatua, arpoilaria balea arpoitzeaz. Alboan duen legendak zera dio: *Solo los principes archiduquesa con sus criados e tesoros confiaron Lequeitio que trae a dos reys moros por empresa. Donde son los marineros con sus lobos muy guerreros en lealtad caballeros que fabric a domaron*. Hipotesiak hipotesi ez dakigu zer esan nahi duen, ez eta noizkoa den ere. Badirudi, hori bai, liburua baino zaharragoa dela, materialak -pergaminoa eta itxurak hala aditzera ematen baitute. Errege mairuak aipatzen dira, baina ez dira agertzen.

¹ Badakigu kontzejuak seilua zuela, baina ez zelakoa zen. Esaterako 1382ko agiri batean (LUA, R 21, 5bis) agertu: “el qual es sellado (sic) de tres sellos/ de cera pendientes, de los cuales tres el vno, el que esta en medio con cera bermeja colgado de vn cordon de canamo, es del dicho sennor obispo, e los otros, de cada/ dos cauos, el vno del dicho conçeio e el otro de los dichos arçipreste e curas e cauildo de la dicha iglesia...”. Dokumentua badaukagu, baina seilua ez, argizerizkoak normalean apurtu eta galdu egiten ziren.





2 Hurrengo armariaren irudikapena Udaletxeko Batzar gelan daukagun bandera edo zutohialean dago. 1558an² ekarri zen Valladolidetik eta harrezkero gurekin segitzen du.³

Hiru hilebete egin zituen Rodrigo alkateak Valladoliden, herriko interesak defendatzera joanda. Bide batez, bandera hau eta ez dugun ezagutzen seilu berri bat ekarri zituen Valladolidetik, LUA, R 53, 264v:“ (ulergaitza) de setienbre pague al señor Rodrigo de Ybatao alcalde quatro ducados por la plata y echura y esculptura del sello concegil nuevo que truxo de Balladolid”.

Zaharberitze ugari izan arren -guk dakigula 1796, 1818⁴, 1881 1903, 1967-, ez dira ondo ikusten xehetasunak. Ez dakigu dorrea edo gaztelua den, ez dakigu mairuak agertzen diren, ontziko eszena ez da ondo ikusten... Hori bai, *Reges devellavit horrenda ceta subjecit terra marique potens Lequeitio* idazkuna primeran heldu zaigu. Estimuan daukadan Amantzi Urriolabeitiak, botikaria izan arren, gustoko zuen genealogia eta armarren mundua. Lekeitiar honen hitzak Euzkerea al-

2 Cavanillesek 1558. urtean erosi eta ekarri zela idatzi zuen arren, 1588an izan zela errepi-katu izan da behin eta berriz

3 LUA, R 53, 265r: “Este día pague al señor Rodrigo de Ybatao alcalde dozientos e quarenta e tres reales por la bandera nueva de tafetan a colores que truxo para esta villa conforme al mandato de la princesa e gobernadora e del señor corregidor y del señor don Juan alonso de butron es a saber por treynta e tres baras de tafetan que llebaba la dicha bandera de medio ducado cada bara y por honze reales de ylo de seda de colores con que se cosio e por cincuenta reales e medio de su cosura montan en mrs ocho mill e dozientos e sesenta e dos marabidis”.

4 Urte horretan bandera zaharberitu baino gehitxoago egin zen. LUA Udal kontuak, 1818

Cuenta de los gastos causados en la composicion de la Bandera vieja de esta villa, y coste de la nueva echa en Bilbao por la bordadora Doña Maria Ysabel de Garay... Badirudi berria egin zela, baina armarría aprobetxatu zela (Por llevarla á Bilbao para que la Doña Maria Ysabel quitase las armas de la villa que tenia unicamente utiles , y la colocare en la nueva que se le mando hacer segun el diseño remitido).

dizkariko bi zenbakitan argitaratu zuen artikuluan, 1932-12-15/1933-1-15: “Se observa en este escudo: 1º -Un fondo de tafetan rojo de vino, bajo el bordado. 2º -Modificación de la silueta primitiva, al ser adaptado a la del escudo imperial borbónico del reverso: colocados ambos sobre seda blanca adamsada, y timbrados de dos coronas reales iguales, circundado (el escudo municipal) de la divisa: “Lequeitio reges debellavit... etc.”; divisa, probablemente aparecida en el blasón lekeitiano en la época de la reforma de la bandera, y 3º última renovación de la bandera, aprovechando las figuras anteriormente bordadas, colocándolas sobre seda blanca, lisa. Su descripción. Escudo cortado: 1º en el cuartel superior, sobre terrazo, un árbol de sinople, y a su pie, a derecha e izquierda, dos lobos afrontados, con vista al tronco; al lado izquierdo, un castillo cuadrado, en cuyas almenas aparecen dos figuras de reyes moros; 2º sobre agua, una pinaza con varios arponeros, aferrando una ballena que va acompañada de un ballenato. A guisa de bordura, lleva la divisa sobre seda amarilla y letras pintadas de negro, con la leyenda que aparece en el fotograbado”. Gure lagun Amantzi kasu egiten badiogu, gaztelu gainean mairuak agertzen dira. Haren alde, 1932an idatzi zuela eta baliteke zutohialaren egoera hobea izatea orduan zaharberitze lanek askotan kontrakoa lortzen baitute; haren kontra, botikaria zela, ez heraldista eta beste armarrietan ez dela mairurik agertzen.

3 Udaletxeko fatxada edo aurrealdean daukagun armarría 1722an zizelkatu zuen Domingo Bernardo Abariak. Oso sinplea da eta balea kumea eta otsoetariko bat falta dira. Gaztelu gainean ez da mairurik agertzen.



4 Handik gutxira 1735eko “Descripcion de la noble villa de Lequeitio” eskuizkribuan (LUA, R 40) agertu zen armariaren deskribapena: “Una chalupa aferrando a una ballena, enzima un lobo, y por timbre entre la corona un Castillo con dos cabezas de moros reies; su descripcion conforme tienen las antiguas es la siguiente: Los Prinzipes y Archiduquesa con sus criados y tesoros confiaron a Lequeitio: que trae a dos reies moros por empresa, donde son los marineros con sus lobos mui guerreros, en lealtad caballeros, que a Fadrique domaron”. Duda barik, egileak aurreneko pergaminoa ezagutzen zuen. Iturrizak ere, 1780. hamarkadan, gauza bera esango zuen eta Iturrizak esandakoa meztara zihoan. Baina non zeuden mairuak?

5 Hurrengo irudia 1760an hasten den hautaketa liburuan aurkituko dugu, “Libro de eleccion de los señores del gobierno de esta noble villa de Lequeitio, año 1760” (LUA R 89). Balea, lau buruhandi eta gaztelua. Balea kumea, mairuak, otsoa eta zuhaitza falta dira. Itxura naifa du!

6 Berrito agertuko zaigu 1769an hasten den beste hautaketa liburu batean, “Libro de Elecciones de diputados y personeros del comun de la N. Villa de Lequeitio” (LUA R 61). Balea kumea agertu da, baina gaztelua desagertu. Ez dago zuhaitzik, ez otsorik, ez mairurik.

7 1782an hasten den dekretu liburuak ere azalean Lekeitioko armarría darama, “Libro de decretos de la noble villa de Lequeitio” (LUA R 51). Hemen gaztelua eta mairuak bakarrik falta dira. Zuhaitza, otsoak, ontzia, sei arraunlari eta arpoilaria eta balea biak daude.



5



7



6



9



10



Reges debellavit... lema orduan asmatu zen?

Iturrizak 1799an ez zuen ezer aipatu eta artxiboa ondo ezagutzen zuen. Cavanillesek 1857an aipatu zuen.

8 Iturrizak ere *Historia general de Vizcaya* liburuan (1782an, 85ean...) armarriaren deskribapena egin zuen: "Tiene por armas dicha villa una chalupa aferrando á una ballena, encima un lobo y por timbre entre la corona un castillo con dos cabezas de Reyes moros: su descripcion en el siguiente: Los Principes y Archi Duquesa con sus Criados y Tesoreros con fiaron á Lequeitio que trae A dos Reyes Moros por empresa. Donde son los Marineros Con sus lobos muy guerreros: En lealtad Caballeros que á Fadrique domaron". Iturrizak, lehen ere esan dugu, Deskribapen anonimoa -hitzez-hitz kopiatzen du- eta pergamino zaharra ezagutzen zituen; horregatik idazten du idazten duena. Lekeitioko artxiboa ibilitakoa zen eta bandera ere ezagutuko zuen. Beraz, zergatik aipatu mairuak ez baziren banderaren agertzen edo ikusten? Cavanilles ere Lekeition izan zen 1857an eta zera utzi zuen idatzita: "Están timbradas por un castillo á cuyas almenas asoman dos reyes moros". Delmasek ere -eta Lemonauriak- ezagutuko zuten Lekeitio, baina arraunlari *gehixu* kontatu zuten: "Hace por armas una chalupa con ocho remos por banda aferrando á una ballena, encima un lobo, y por timbre en la corona, un castillo con dos cabezas de reyes moros". Bitxia mairuona, aipatu egiten dira, baina ez irudikatu.

9 Hurrengo armarria Julian Tellaechek, Julian Tellaetxe pintorearen aitittak, diseinatu zuen⁵, kastatik kondea.

1829ko jarraibideetan -"Instruccion para el gobierno de los Señores de Ayuntamiento..."- estreinatu zelakoan gauden. Arrakasta handia izan zuen edo Udaletxea mehe zebilen, mende luze batean zehar erabili baitzen aldaketa txikiren batekin -ezkerreko aldetik edo eskumako aldetik hasi *Muy Noble y Muy Leal Alcaldia de Lequeitio* edo *Villa de Lequeitio* esaldia, alde batera edo bestera begira jarri baleak...-. 1936ko gerra heldu zenean oraindik erabili egiten zen: *Alcaldia de la M. N. y M. L. villa de Lequeitio*. Balea arrantza eszena bi balearekin, goian otso bat, eta honen goian gaztelua.

10 1831an hasten den akta liburuan ere armarria agertzen da. Badirudi Tellaetxeren diseinua jarraitzen duela: sei arraunlari, balea handia eta kumea, otso bakar bat zuhaitz barik, gaztelua... Behekaldean lema: *Reges deb. horr. cette subj. terra mar. pot. Lequeitio*.

⁵ LUA, Akta liburuak, 23-3-1829: "Consiguiente a la comision dada al señor Diputado del común Don Julian de Tellaetxe, presentó éste, dibujado por él, en papel el diseño de las armas de esta villa, para gravarlas en sello seco, segun está acordado vervalmente antes de ahora por sus mercedes; y habiendolo examinado prolijamente, mereció la aprobacion unanime de todos; se le dieron las mas expresivas gracias, y se le autorizó en forma, para que haga que un buen maestro de Madrid lo grave en plata ó bronce, para usarlo lo antes posible".

11 Hurrengo armariaren data zehatza ez dugu ezagutzen, baina behintzat 1845eko dokumentu batean agertzen da. Nahiko beranduagoko dokumenturen batean ere ikusi dugu. Delmasen inprentakoa da, baliteke beraz, berak asmatua izatea. Ternua dirudi, iceberga bakarrik falta, balea arrantzaren eszena da protagonista.



11

12 Batzuetan armaria erdi ezkutuan egoten da. Riudave-tsek 1874an *La Ilustración Española y Americana* aldizkarian argitaratu zuen grabatuaren goiko aldean ageri da. Baliteke irudia 1861ekoa izatea, orduantxe egon baitzen gurean bere aitarekin batera.

Honek balea, otsoa eta gaztelua bakarrik irudikatu zituen eta bere erara.



12

13 1888ko iturrietan ere armaria moldatu zen. Oraingoan eskematikoa behar zuen izan: bost lagun -3 arraunean, patroia eta arpoilaria balea harrapatzean-, itsasoa eta zerua baino ez... Arranegi Zabaleko iturriak eszena bera du pintaturik.

14 Baliteke hurrengoa *Alcaldia de la villa de Lequeitio* daren hori izatea -esaterako 1903ko dokumentu batean agertu-. Hori ere, Delmasenaren antzera, inprentako orria da, aurretiaz inprimatua. Hemen ere, balea arrantzaren eszena da nagusi. Ontzian sei arraunlari, patroia eta arpoilaria.



14



13

15 Hurrengoan 1932an Amantzi Urriolabeitiak proposatu zuena da, mairu eta guzti. Bere hitzak: "Escudo cortado. Cuartel superior: en campo de oro, sobre un terrazo de sinople con dos lobos negros a su pie, a derecha e izquierda, afrontados, con vista al árbol; 2o al lado siniestro; una torre cuadrada, mazonada, de cuyas almenas sobresalen dos reyes moros. Cuartel inferior: sobre ondas de plata y azul, una pinaza, en la que su tripulación boga al alcance de una ballena, que va acompañada de un ballenato; de cuya pinaza el ballenero, erguido a proa, amaga lanzar el arpón sobre la ballena. Al exterior y circundando el escudo, en cinta argentada con vueltas de gules y letras de azul, el lema: LEQUEITIO. REGES. DEBELLAVIT. HORRENDA. CETTE. SUBJECT. TERRA. MARIQUE. POTENS. Apoyada en la cinta, y surmontada, una corona mural de oro, en cuyo circulo van engastados rubies y esmeraldas". Dotorea behintzat bazen!



15

16 1934an Paskual Abaroari eraiki zitzaion monumentuak ere armarría du betiko elementuekin: gaztelua, zuhaitza, otsoa, balea arrantzaren eszena eta mairuak. Urriolabeitiaren eragina bistakoa da.



16

17 1966an Udalak Francisco Sesmerok proposatutako armarría onartu zuen. Harrezkero aldatzeko edo egokitzeko saiakeraren bat izan den arren -esaterako 2001ean Juan Vidal-Abarcaren estudioan proposatutakoa- beronekin jarraitzen dugu. Baina, lekeitiarron izakera, aurrerantzean erabili izan dugun armarría ez da izan Sesmerok proposatu eta Espainiako Gobernuak Historiako Errege Akademiaren onespenezkin baimendu zuena 1968-3-8an: "Cortado. Primero, de oro, árbol tejo, de sinople, terrazado de lo mismo, acostado de dos lobos de sable, pasantes y afrontados, y siniestrado de torre de su color, mazonada y aclarada de sable, de cuyas almenas salen dos figuras de moros de carnación. Segundo, sobre ondas de agua de azul y plata, una pinaza con varios remeros y en su proa un arponero en actitud de lanzar un arpón a una ballena, que va acompañada de un ballenato. Bordura general de oro con la leyenda "Reges debellavit horrenda cette subjecit terra marique potens Lequeitio", puesta en letras de gules. Al timbre, Corona Real".

Sesmerok proposatutako armarríaren forma ez zen errespetatu: itxura "fantasioso" hori kendu nahi izan zion, "Se suprime la forma caprichosa del escudo que actualmente ostenta y se implanta la forma del escudo español cuadrilongo" baina argi dago ez geniola kasurik egin.



17

18 Esandako moduan, Udalak armarrria egokitu nahi izan zuen 2001 aldean eta ikerketa eskatu zion Juan Vidal-Abarca adituari. Honen ikerlana nahiko interesgarria izan zen eta mairurik ez zela agertu behar argudiatzen eta proposatzen zuen, gehien bat.

19 Amaitzeko Urriolabeitiak beste hiru armarriren berri eman zigun “El Escudo de Lekeitio” Euzkerean argitaratutako artikuluan.

Bata, haren ustez XVIII. mendekoa, Antiguako Amaren grabatu batean agertzen zen, erretaularen gainean (ikus 39. or.). Ez ziren ageri gaztelua eta balea kumea.



Bestea, Urriolabeitiak txikitik ikusi -eta gogoratzen- baina aurkitzen ez zuen armarr bat zen, taula pintatu bat: “La escena marina era la corriente del blasón municipal; mas en la indumentaria, de vario color, de los arponeros, me chocaba el tocado, consistente en txanos caidos y puntiagudos coloreados de rojo. Es sorprendente la coincidencia de este tocado con el de los arponeros del pergamino de 1569. La parte superior de este escudo era exactamente lo figurado en la bandera; es decir: el árbol con los dos lobos afrontados al pie: excepto el castillo que aparecía como timbre, bajo una corona ducal dorada. No puedo asegurar llevase leyenda”.

Eta azkena, karlistak Lekeitio egon zirenekoa: “Uno de estos sellos (dibujo numero 7) se reproduce por su valor histórico. Es de la dominación carlista: y en él se lee, en abreviatura, el título de Fidelisima, concedida por Carlos VI de Bizcaya, séptimo de su nombre pretendiente al trono de España”.

